



# EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

*Ostiralean, abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu Laudio Ikastolan.*

*Hori dela eta, etapa guztietan ekimen ezberdinak garatzen ari gara aste honetan zehar eta biharkoan aparteko programa izango dugu, gelaz gela bada ere.*

**EKARRI ZAPI KOADRODUNA ETA EUSKARAZ BIZI KAMISETA!**

*Egun horretan zapi urdina eta "Euskaraz bizi nahi dut" edo antzerako leloa duen kamiseta jantzita ekartzera animatzen zaituztegu.*



## AIARALDEKO EUSKARAREN EGUNA BERTAN BEHERA GELDITU DA



*Larunbaterako Luiaondon deituta zegoen Aiaraldeko Euskararen egunaren jaia bertan behera belditu da.*

*Antolatzaileok, Laudio Ikastola barne, bizi dugun pandemia egoera eta izaten ari garen eguraldi iragarpenak ikusirik, jaia aurrerago iragarriko den beste data batean ospatzea erabaki dugu.*